TXOKEKO AUTOTAN

Txokeko autotan
ibilli naiz saltoka,
pentsatuz nere baitan
«au dut au bikoka!»
Batetik bestera
alkarreri bultzaka,
iñor asarre ezta
danontzako poza.
Ala ere bizitzari
ezin nik au opa
munduan ibiltzea
danok alkar mutur-joka.

Baiñan gu, gizonok,
asarrean ausarki,
gabiltz txorakeri bat
degula aitzaki.
Jaunak, ez al degu
gure artean aski,
gudan ibiltzeko
armaz gogortsuki?
Munduarentzat danak
eska zagun grazi
errespetoz ta pakez
alkarrekin gaiten bizi.

*Julian Lekuona*

TXOKEKO AUTOTAN

(EN LOS AUTOS DE CHOQUE)

En los autos de choque
he andado saltando
Pensando en mi interior:
Esto es una bicoca!
De un lado para otro
empujándonos mutuamente.
Nadie se enfada
y todos estamos alegres
A pesar de todo yo no puedo
desearle nada así a la vida.
El que todos andemos por el mundo
pegándonos mutuamente.

Pero nosotros los hombres
nos enfadamos con osadía
tomando como excusa
una tontería
Señores, no tendremos
ya suficiente
para andar en guerras
con armas y con pasión?
Pidamos todos
gracia para el mundo
Para que podamos vivir
con respeto y en paz.

*Julián Lekuona*

## ERREGE BALTAXARREN BALADA

Auzoko Joseba, ume begi xuri,
errege beltza aurrean.
—Ai zazu Baltaxar, asko dezakezu,
amak esan dit goizean.
Jostalluz ta goxoz asperturik nago
ta ekarri neri gauean.
Aspalditik nago pentsamentu goxoz,
andregai baten naiean.

Baltaxarrek berriz, oso arriturik,
ola dio Josebari.
—Ai zak, i, Joseba, ez nazak faborez
estuasunean jarri.
I nor izan ba itz, beteko nikek nik,
biotzez ire nai ori.
Gauz oiek ordea, aundienak dituk,
konprenditzen saia adi.

Orduan zergatik esan zaudela zu
dana almenez beterik.
Demostratu zazu emen nere aurrean
or ez dagola gezurrik.
Bestela ez pentsa naiz zu aundia izan
engañatuko nauzunik.
Esanak bakarrik ez bai du egiten
errazoiaren itzalik.

*Julian Lekuona*

**HG - 3**

**HERRI-GOGOA - EDIGSA**

## BALADA DEL REY BALTASAR

Joseba mi vecino, niño de ojos blancos,
está delante del rey negro.
—Oye Baltasar, sé que eres poderoso,
me lo ha dicho mi madre esta mañana.
Estoy harto de juguetes y golosinas
y tráeme esta noche
Desde hace tiempo, con pensamientos dulces
estoy deseando una novia.

Baltasar muy sorperndido
así le contesta a Joseba
—Oye Joseba, no me pongas por favor
en un aprieto
Si tuvieras suficiente personalidad,
haría cumplir ese deseo tuyo de tu corazón.
Estas cosas, sin embargo corresponden
a los mayores, trata de comprender.

Entonces porqué decir que eres poderoso
Demuestra aquí delante de mi
que eso que se dice es verdad.
Si no, no pienses que por ser tú un hombre
hecho me vas a engañar.
Porque solo las palabras
no pueden hacer la misma sombra
que las auténticas razones.

*Julián Lekuona*

ALELUIA

Kanta dezagun danok
Au da egun alaia!
Kristo jaio da eta
kanta Aleluia.

Poztu aingeruak;
poztu zeru-lurrak.
Poztu Eliza
poztu erritarrak.

Poztu famili;
poztu gurasoak.
Poztu biziak
poztu ildakoak.

Poztu gaxoak
ta osasuntsuak.
Poztu aberats
ta ezbeartuak.

Poztu abere
arrai ta egaztiak.
Poztu landare
ta izaki guztiak.

*Julian Lekuona*

ALELUIA

Cantemos todos juntos
Este es el día de alegría!
Cristo ha nacido
Cantad Aleluia.

Alegraos los ángeles
Alegraos cielos y tierra.
Alegraos Iglesia,
Alegraos todas las gentes.

Alegraos familias;
Alegraos padres.
Alegraos los vivos;
Alegraos los muertos.

Alegraos los enfermos
y los sanos.
Alegraos los ricos
y los pobres.

Alegraos las bestias,
los peces y los pájaros.
Alegraos las plantas
y todos los seres.

*Julián Lekuona*